

## BERRIEMAILEAK ZIENTZIA

Deskribapena: Pantaila hiru zatitan banatua agertzen da, zati bakoitza korrespontsal edo berriemaile batekin, Aitor Abaroa (Lekeitio), Ane Pedruzo (Gasteiz) eta Argitxu Camus (Ezpeize), baina Aitor eta Argitxu hasieran bata bestearen lekuan ageri dira.

Kike (off ahotsa): Eta zuek ze harreman izan duzue zientziarekin?

Argitxu: “Eh, baina hemen arazo bat dugu, hau ez da nire herria!”

Aitor: “Ez, hau ez da Lekittoko portua, hori argi dago.”

Argitxu: “Ni ez naiz bizkaitarra!”

Ane: “Ba ni ondo nago!”

Deskribapena: Aitor eta Argitxu zutik jarri eta lekuz aldatzen dira.

Ane: “Orain ondo?”

Argitxu: “Ah! Orain bai, etxean! Beraz, zure galderari erantzuteko zientziakin egia erran nik harreman oso gutxi dut, gehiago letretako pertsona bat naiz edo giza-zientzietakoa. Zuek?”

Ane: “Ni ere bai, letretako emakumea.”

Aitor: “Bai, bai, nik e urtiak dira batxilerguan fisika eta kimika ikasi nebanetik letrak bakarrik.”

Argitxu: “Eta gero zientziak zenbat gauza harrigarri sortu dituzten ere! Adibidez, aipatzeko bat internet eta euskarak ere badu interneten bere lekua, ezta?”

Ane: “Bai, internetena harriagarria da, niri egia esan, komunikazioarekin loturiko asmakizun gehienek liluratzen naute, ez? Ba inprenta, telegrafoa, gero ba telefonoa, telebista, mugikorra eta ja internet hor hodeian dana partekagarri dana eskuragarri da...”

Aitor: “Bai, bai, sare sozialak ezta? Adibide garbia dira, seguru etxian bat baino gehiago oan tribuaren berbak twitter bat baino gehiago bialtzen dabizela.”

Ane: “Txioka, txioka.”

Argitxu: “Bai, nik ere beharko dut hasi twiteatzen.”

Aitor: “Hasi behar zara.”